

5. URKOME SARIAK- SARI BANAKETA

2017ko Azaroaren 30ean, goizeko 12:00tan, Azkoitiko udal pleno aretoan,
V.Urkome Sariak banatu dira.

Bertan epaimahaiaren akta irakurri eta sariak banatu direlarik.

5. URKOME SARIAK EPAIMAHAIAREN BILERAREN AKTA

2017ko Azaroaren 17a, ostirala, goizeko 12:00tan, Azpeitiko Sindikatu
zaharreko batzargelan

Bertaratutakoak

URKOMEKO ZUZENDARITZA BATZORDEKO KIDEAK DIREN:

Jose Angel Zaldua
Nekane Arrizabalaga
Miguel Angel Bastida
M^aJesus Salsamendi
Jose Miguel Aizpurua
Iñaki Odria
Juan M^a Irastorza

Eta haiekin batera:

Miguel Lozano HAZI-ko teknikaria
Alazne Larrañaga Iraurgi Berritzen-eko teknikaria

eta Yurre Peñagarikano Urkomeko gerentea

Aurkeztutako 8 proiektuak aztertutik ondorengo erabakia hartzen dute:

5 ataletarako irabazle hauek aukeratzea:

Atal bakoitzeko irabazleak 2.000€ ko dirusaria izango du

1º Nekazaritza jardueraren sustapena atalean

Titulua: HAZI EKOLOGIKOEN MERKATURATZE ZUZENERAKO TOKIKO EKOIZLEEN SAREA

Deskribapena: Euskal Herrian hazi ekologikoen lehen esperientzia eragiteko proiektua da, (circuito corto) eremu txiki bateko ekoizle sare batean oinarrituz eta elikaduraren kate-maila garrantzitsu hau balioan jartzeko asmoz, agroekologia, jasangarritasuna, ikerketa eta sektore egonkor eta berritzaile baten aldeko apustua eginez.

Egilea: MIGUEL ARRIBAS

2º Landa eremuko jarduera ekonomikoaren sustapena

Titulua: TOKIKO BASALANDAREEKIN ARTISAU PRODUKTUAK ETA FORMAZIO/ESPERIENTZIAK

Deskribapena: **Basalandareekin** egindako **produktu ekologikoak eta artisauak**, eta hauen inguruko **formazioa eta esperientziak** eskeinitzeko dira. Garai batean gure arbasoek egin zuten antzera. Basalandare-kremak, xaboiak eta ongailua (aderezo) produktuen artean. Tailerrak, ibilbideak, etab. zerbitzuen artean.

Egilea: JONE ALDABALDETREKU TELLERIA

3º Landa eremuetako azpiegitura eta zerbitzuak bermatu

Titulua: HAZIAK LAU HAIZETARA ZABALTZEN

Deskribapena: Pertsonaren zaintza ardatz hartuta eta bizi prozesuekiko errespetuzko begirada zabaldu asmoz, egitasmo integral zabala eskeintzea da asmoa. Hezkuntza eta haziera berrikuntzan oinarritzen den egitasmoa da. Zerbitzu nagusiak hezkuntza eta ostalaritzarekin lotuta daude. Hezkuntzari lotuta; eskola arautua, profesionalentzako formazioak, ikastaro eta tailer eskaintza eta udalekuak. Ostalaritza esparruan; aterpetxea, jendetxe eta taberna zerbitzuak. Komunitatean sortutako ekimena da, kideon grinez sortuta eta auzolanean.

Egilea: AINARA AGIRREGABIRIA

4º atalean, Landa eremuko balio-aniztasuna agerian jarri

Tituloa: ELIKADURA BURUJABETZA

Deskribapena: Gure helburua, bertako (Euskal Herria osoa) eta garaiko produktuekin elikadura orekatu, osasuntsu eta oso bat egingarria dela demostratzea izango da. Sare sozialen bidez aurkeztuko eta zabalduko genituzke jatordu desberdinak eta protagonista bertako eta garaiko produktuak izango dira. Herritarrei heziketa nutrizional egoki bat helaraziko genieke, azken ondorioa ongizatea izango delarik

Egilea: AITZIBER AIZPURU

Iraurgi Berritzen eta Urola Kostako Udal Elkarteak amankomunean ematen dutena

Tituloa: DENDA EREDU BERRI BAT

Deskribapena: Azpeitia zentro bezala hartuta 150 km-ren bueltan ekoizten diren elikagaiak soilik bilduko dituen gunea, heziketa gunea, dastaketa gunea, sukaldea, Basque Label harategia eta janari dendak osatua. Salmentaz haratago, kontzientziario ekimen ezberdinak burutuko dituen proiektua da, produktuak baloreen jarriz, lehen sektorea indartu asmoz.

Egilea: AGURTZANE ODRIUZOLA/ XABIER IZAGIRRE/ IORITZ AIZPURU

Azkenik,

Sari irekia- bozka bidez egindakoaren emaitzak

Guztira 864 bozka eman dira azaroaren 7tik 30ra bitartean www.urkome.eus webgunean
Emaitzak ondorengoak izan dira.

3.- POSTUA 113 bozka %13,1 portzentaiarekin
TIDORE

2.- POSTUA 240 bozka %27,8 portzentaiarekin
LA OVEJA LATXA

1.-POSTUA eta UROLA KOSTAKO PRODUKTU SORTA HONEN irabazlea 292 bozka %33,8 portzentaiarekin

HAZI EKOLOGIKOEN MERKATURATZE ZUZENERAKO TOKIKO EKOIZLEEN
SAREA

Egilea: MIGUEL ARRIBAS